

MEHATXUA ITSAS HONDO SAKONEAN: MINERALEN ETA METALEN ERAUZKETA ATE JOKA DUGU

Ekosisteman, kliman eta beraz bizian atzerabueltarik gabeko eraginak izanen lituzkeen erabaki bat eztabaidagai ukanen du martxoaren 16tik 31ra Itsas Hondoen Nazioarteko Autoritateak: itsaspean dauden metal eta mineralen erauzketari bidea ireki ala ez. Enpresa estraktibistak itsaspeari begira jarriak dira, 200 metrotik 10.000 metrora arteko hondo horiei, eta lobbygintzan dabilta. Parean, ekologistak eta zientifiko andana daude, laster posizionatu beharko duten estatuak informatzeko lanari lotuak. Hil ala biziko sokatira dugu. Estraktibistek irabaziz gero guztiak izanen gara galtzaile.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Kapitalismoak ez dauka mugarik, aseezina da bere gosea, eta itsas hondo sakonei begira daukagu orain: itsasoaren behealdean 200 metrotik 10.000 metrora arte doan zolari. Sakontasun horietako mineralak eta metalak eskuratzea du amets –besteak beste, zink, urre, zilar, kobrea, manganeso, kobalto, nikel ala litio–.


Alta, kasik heldu ezina den eremua dugu, mendi-katez, sumendiz, arroilaz eta eremu zabal abisez osaturikoa. Argia ere ez da heltzen sakonera horietara eta iluntasuna da nagusi –zer-nolakoa den ekosistema, bertako bost animalietatik batek du argia jaultkitzen hunki orduko, biolumineszentziari esker. Eta *Parapandalus sp.* ganba bat ere dago, argia goiti botaz bere ingurua argitzen duena! Ki-deak atzemateko, elikadurak errazkiago aurkitzeko eta behar orduan lasterrago ihes egiteko balio die biolumineszente

izaerak–. Anne-Sophie Roux ekologistak ondokoa dio Radio Nova irratiari eskainitako elkarrizketan: "Itsas hondo baina hobeki ezagutzen dugu ilargiaren azala". Ez ditugu ezagutzen bertan bakan diren espezieak –zientifikoek diogure ekosistemako espezieen %80 deskubritu gabea daukagula–. Baina berdin dio, hainbat enpresa eta estatu itsas hondoko metal eta mineralak eskuratu nahian dabilta, eta bertako guzia xehatzeko prest dira.

"Nodulu polimetalikoa" nozio zientifikoz izendatzen dira eremu horretako aberastasun geologikoak. Zehazki, bost eta hogeitazentimetro arteko diametro-dun bolak dira, hazteko milioika urte behar izan dituztenak. "Itsas hondoa guzia, guzi-guzia, oso poliki doa. 1980ko hamarkadan itsas hondora egindako lehen espedizioetako talde batek utzitako arrastoak atzo egin izan balira bezala

ikusten dira. Milioi bat urte behar dute manganeso-noduluek, ozeanoen hondoko metal preziatuzko pipita horiek, 5-20 milimetroz hazteko. Ekologistek abisua emana dute suntsituta dagoen guzia ez dela denbora luzean birsortuko, eta agian inoiz ez dela berriz agertuko", irakurri daiteke Heinrich-Böll-Stiftung Fundazioaren 2018ko Ozeanoen Atlasen.


"Sulfuro polimetalikoei" ere begira dira, horiek kobrez, burdinez, urrez, zilarrez eta zinkez aberatsak, itsaspeko gunek bolkanikoetan direnak; baita "kobaltodun azaldurei" ere, mendi tontorretan dagoena –100.000 lirateke 1.000 metroz gorako itsaspeko mendiak–. Irengailu eta hondeagailu erraldoi batzuk bertaratu eta zolak karrakatu eta irentsiko lituzkete, ondotik hodi bidez bideratzeko enpresen itsasontzi eta plataformetara.



EKOSISTEMAREN SUNTSIKETA, TRANTSIZIOAREN IZENEAN

Erauzketa horrek kliman eragin atzeraezina luke: zientzialariek diote berotegi efektua dakarten gasen %38 xurgatzen duela itsas hondoak baita isurketa horiek eragindako berotasunaren %93 ere. Zer gertatuko da karbono dioxido horren askatzearekin? "Karbono-bonbatzat" daukate erauzketa hori, eta nola ez, klima larrialdia pairaezina bihurtzeraino gaiztotu besterik ez luke egingen. Nahiz eta eragina argi ukan, eremu horri buruzko ikerketa zientifiko guti ditugu eta ezjakintasan gehiegi. Horregatik dabilta moratoria bat lortu nahian hainbat eragile, eta hori zuhertasunaren printzipioaren izenean.

Oraingoz Itsas Hondoaren Nazioarteko Autoritateak ez du erauzketa baimentzen, baina iaizko uztailaz gero mahai gainean du auzia. Industria horri atek



irekitzeko sekulako presioak jasaten dabil lobbyen eta estatu batzuen partetik. Azken horiek, 2023ko uztaileko nahi lituzkete aldeko legedi eta prozedurak, ustiakarako lizentziak jaso ahal izateko. Ekologisten kexua hauspotzeko balio dute beraien argudioek, tartean beraien *greenwashing* joera ausartak: trantsizio ekologikoa bideratzeko ezinbesteko urratsa litzateke. Beraien hitzetan "berdeak" diren teknologia berrientzako (auto elektronikoa, plaka fotovoltaikoa eta beste) ezinbestekoak dira mineral eta metal horiek, eta lur gainekoak ez lirateke nahikoak aldaketa hori bideratzeko. Trantsizioaren izenean "karbono bonba" bat zapartarazteari buruzko eztabaidan sartu gabe, baieztapen hori gezurtatzen du Anne-Sophie Roux ekologistak: "Ekonomia zirkularra eta jadanik ateratako mineral zein metalen birziklapena osoki bideratuko bagenitu, orduan erantzuten ahalko genuke eskaerari".

Ekologistak dabilta informazioa zabaltzen eta estatuen ordezkariari begira pedagogia eta presio lanak egiten. Horri esker zuen Frantziako Parlamentuak moratoriaren alde bozkatu urtarriaren 17an, gehiengo osoan -215 bozka alde

Itsas honduari buruzko ikerketa zientifiko guti ditugu eta ezjakintasunak gehiegi. Horregatik dabilta erausketei buruzko moratoria bat lortu nahian

eta eskuineko eta eskuin-muturreko 56 aurka-. Industria horrek eragindako kalteen lehen lerroan egonen liratekeen Ozeano Pazifikoko ugarteetakoek abiatu zuten aurkako mugimendua, eta beste estatu batzuk ere dira moratoriaren alde: Zeelanda Berria, Alemania, Panama, Txile ala beste.

Greenpeace zein WWF bezalako Gobernuz Kanpoko Erakundeak ere dabilta kanpainak bideratzen. Baina ez dira

bakarrak: Deep Sea Conservation Coalition izeneko koalizioaren parte dira ehun bat kolektibo. Buru-belarri dabilta, hain zuzen, denbora mugatua zailgularako: martxoaren 16tik 31ra iraunen dute negoziaketek, Jamaikako Kingstonen iraganen direnak, eta orduan ariko dira 168 kideak itsas hondoen esplorazio eta esplotazioaz eztabaidan.

Oraingoz esploraziorako baimenak ditu banaturik sektore hori hobeki kudeatzeko 1994an sorturiko Itsas Hondoen Nazioarteko Autoritateak. Orotara berrogei bat banatu izan ditu eta eremuari dagokionez, 1,3 milioi kilometro koadro dituzte ikergai. Baimen bakoitzak eremu alimalea gordetzen du bere baitan, eta hori horrela, ustiapenaren pausoa emanez gero ondorioak irudikatzea ez zaigu neke... Adituek argi dute: ekosistema nahaspilatuko luke industria horrek, itsaspeko fauna eta flora ezezagunak suntsituz. Besteak beste, lurzorua sedimentuak mugitzeak kalte egin diezaioket uraren uhertasunari, argitasunari eta osaketa kimikoari, dakigulako gainera, ondotik hondakinak isurtzen dituzte-la ur horietara, milioika urtez zegoen oreka apurtuz -demagun, ekosistemari

GUZTIA SUNTSITUZ

Makineria eta teknologia sofistikatuak garaturik dituzte, itsas hondoa karrakatu eta bertako guzia irensteko gai direnak.



EREMU MISTERIOTSUA

Bertako fauna arras guti ezagutzen dugu. Zientifikoek diote, bertako bost animalietatik batek biolumineszente izaera duela, hots, argia ekoizteko gai dela.



PINTEREST

egokitzeko garatzeko gai izan diren biolumineszente izaera liluragarria ez litzateke nahikoa ur nahasi horietan-. Zerrerranik ez tresneriak eragindako kutsadura akustikoaz.

The Metals Company enpresa kanadarraren esplorazio eta testen berri eman ziguten urte hastapeneko bideo batzuek; baimenik gabe, itsasontzian ziren zientifikoek zabaldu zituzten, gertatzen ari denaz herritarrek informatzeko: axola gabe, metal

TMC enpresaren esplorazio eta testen berri eman ziguten itsasontziko zientifikoek, baimenik gabe zabaldu bideo bidez. Zaborrak itsas azalera botatzen ageri dira

eta mineralen ustiaketak eragindako zaborrak itsas azalera botatzen ageri dira -ilegalki gainera, baimenaren baldintzetariko bat delako erabiliko ez dutena berriz itsas hondoan hustea-. Nauru, Kiribati eta Tonga estatuekin eskuz-esku lortu zuen enpresa kanadar horrek lehen esplorazioa "testatzeko" baimena. Baimen bakarra Pazifikoko Clarion Clipperton eremurako... hango 3.600 tona pipita ñimiño bereganatzeko. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
 T. 943 420 624
 info@zinkunegioptika.com
 www.zinkunegioptika.com

f i